

1936ko Donostiako planoak,
gera aurreko garaikoa
Donostiako Udal Artxiboa

36ko GERRA

DONOSTIAN:

GERTAKARIEN


MAPA




Irutxuloko Hitzak
20urte




Gatazka
belikoak



Lurperatze
lekuak




Fusilatzeko
lekuak



Atxilotze
guneak



Bortxazko
lantokiak



Leku
bonbardatuak



IBILALDIA: ATZERA BEGIRA, DINAMITAREKIN

Zer memoria mota eraiki dute Donostian? Zer dakigu eta zergatik? Zer harreman du iraganak etorkizunarekin? Atzera begira egiten dugu gaur egungo hiri eredua ulertzeko eta narratiba berriak eraikitzeko. Faxismoa garaitu zuen Donostia hura gogoratu nahi dugu, une batean etorkizun ezberdinak eraikitzeko aukera eskura egon zelako hirian. Memoria etorkizunez beteriko arma bat delako egun, inoiz baino gehiago.

I Bretxa: 1813ko erreketeta eta sarraskia

1813ko abuztuaren 31ko suteak hiriaren suntsiketa eta arpilaketa ekarri zuen, eta herritarrak bortxatu, jipoitu eta erailtzea. Tropa ingelesek eta portugesez ez zuten inoiz egindakoa ordaindu, ezta tropa espainiarrek ere. Gertakari lazgarri hark, ordea, izan zuen ondorio gehiago hirian: herritarrak desjabetu eta kanporatu zituzten eta etorkizuneko hiri eredu burgesaren zimenduak jarri zituen, Donostiako kapitalismoa konfiguratu.

2 Udaletxea: lehenengo enfrentamenduen gunea

Altxamendu frankista hasi berritan, 1936ko uztailean militar kolpistek hiriko hainbat esanguratsu hartu zituzten, hala nola, Kasinoa, gaur egun Donostiako Udaletxea dena. Errepublikaren aldeko miliziano antifaxistek, ordea, aurre egin eta setiatu egin zituzten, baita garaipena eskuratu ere. Borrokaldi horien arrastoa dira fatxadan daude bala zulo ugariak.

3 Maria Cristina hotela: faxistak setiatuta

36ko uztailean militar kolpistek hartu zituzten beste eraikin esanguratsuetako batzuk Maria Cristina hotela eta ibaiaren beste aldean dagoen La Equitativa eraikinak izan ziren. Antifaxistak, aldiz, Viktoria Eugenia antzokian sartu ziren, hotelean zeudenak setiatzeko. La Equitativakoei, aldiz, inguruko kaleetatik egin zieten eraso. Bi eraikin horiek ere berreskuratu zituzten milizianoek, etorriko zen garaipenerako urrats garrantzitsuak eginez.

4 San Jose ikastetxea: emakumeen espetxea

Altxamendua garaitu eta bi hilabetez hiriaren kontrola miliziano errepublikazaleen esku egon ostean, irailean, tropa frankistek hirira sartzea lortu zuten. Urte luzez jarraitu zuen errepresio bortitza hasi zen orduan. Ondarretako espetxea txiki gelditu zitzaien frankistei, eta bestelako presondegiak irekitzen hasi ziren. San Jose babes etxean, hain zuzen ere, emakumeentzako kartzela sortu zuten. 1940. urte ingurura arte egon zen zabalik.



6 Sanchez Toca kalea: operazio gunea

1936an, Jesusen Bihotzaren ikastetxea zegoen bertan, eta anarkistek okupatu egin zuten gerraren hasieran. Materiala, janaria eta bestelakoak gordetzeko erabili zuten, eta hiriaren defentsa koordinatzeko funtsezko gunea izan zen. Larramendi eta Sanchez Toca kaleetako egoitzak Checa gisa ere definitu dituzte autore batzuek, atxiloketa gune gisa ere erabili zituztelako. Defentsarako ez ezik, hala ere, gizarte lana egiteko ere erabili zuten gerora Sanchez Tocako egoitza, Donostiako Komuna ezarri zutenean.

7 Urbieta kaleko eskola: borrokaldi garrantzitsuak

Amarako borrokaldietako arrastorik argienetako bat Urbieta kaleko eskolan dago, fatxada bala zuloz josita baitago. Inguruko kaleetan borrokaldi luze eta gogorrak izan ziren, miliziano errepublikazaleen eta militar kolpisten artean. Eta biktima asko egon baziren ere, herriak irabazi zuen, antifaxismoak irabazi zuen.

8 Kaxilda liburu denda: bukaera hasiera da

Ezin da Donostiako 36ko gerraz eta erresistentzia antifaxistaz hitz egin, Casilda Hernaez anarkista ezagunaz hitz egin gabe. Felix Likiniano kidearekin batera, Donostiako erresistentziako borrokalaria garrantzitsuenetako bat izan zen Hernaez, orduko anarkistentzako zein hurrengo belaunaldientzako erreferente. Altxamendua garaituta, Donostiako Komunan parte hartu zuen eta, erbesterratu ostean, nazien aurkako erresistentzia frantsesean ere modu aktiboan aritu zen, besteak beste. Egungo Kaxilda liburu dendak bere omenez dauka izen hori.

5 Larramendi kalea: ez ziren pasatu

CNT sindikatuak bertan zituen hainbat lokal 1936an, eta gune hori izan zen altxamendua gelditzeko gune garrantzitsuenetako bat. Izan ere, Loiolako kuarteletako militarren zutabeetako bat Urbieta kaletik zen hiriaren erdigunera iristekoa, baina anarkistek barrikadak altxatu zituzten Larramendi kalean bertan, eta borrokaldi handien ostean, kolpisten martxa geldiaraztea lortu zuten.

36ko gerra Donostian: gertakarien mapa

★ Gatazka belikoen lekuak

1. Kasinoa (egungo udaletxea), Ijentea kalea, 1. **2.** Klub Nautikoa, Ijentea kalea, 9. **3.** Komandantzia Militarra (egun, Goikoa Jauregia), Ijentea kalea. **4.** Udaletxea (egun, Udal Liburutegia), Konstituzio plaza 1. **5.** Maria Kristina hotela, Argentinako Errepublikaren pasealekua 4. **6.** Principe de Saboya hotela-Urumea frontoia, Ramon Maria Lili pasealekua 3-4. **7.** La Equitativa eraikina, Vasconia plaza, 1 (gaur egun, Euskadi plaza). **8.** Iztueta kalea. **9.** Correo hotela, Urbieta, 41. **10.** Amarako Eskola Publikoak, Urbieta kalea, 38. **11.** Easo, 47. behea. **12.** Larramendi kalea. **13.** Behartsuen ahizpen komentua, Konkorrenea, 23. **14.** Polloeko hilerria, Polloe plaza. **15.** Txurkoenea baserria, Gabriel Aresti pasealekua, 14-16. **16.** Sibilia Haundi eta Sibilia Txiki baserriak (egun desagertuak), Sibilia kalea. **17.** Lorentzionenea Haundi eta Lorentzionenea Txiki baserriak, Gabriel Aresti pasealekua, 152. **18.** Moskotegi baserria, Polloeko hilerria. **19.** Udara Berri baserria, Gabriel Aresti, 158-160. **20.** Etxetxo baserria, Gabriel Aresti pasealekua, 166. **21.** Igola baserria (egun desagertua) Irola. **22.** Tuniz Berri baserria (egun desagertua). **23.** Zamarra baserria, Otxoki pasealekua, 10. **24.** Otxoki baserria (egun desagertua), Otxoki pasealekua. **25.** Ametzagaña parkea. **26.** Ubako babes etxea (Adin txikikoen babes Patronatua), Uba bidea, 37. **27.** Loiolako kuartela, Aralar mendia, 51.

✚ Lurperatze lekuak

1. Uliako gaina. **2.** Polloeko hilerria, Polloe plaza, 2. **3.** Altza (Ametzagaña). **4.** Burdinazko zubiaren ingurua (egun, Realaren zubia eta II. Errepublikaren plaza)

🔫 Fusilatze lekuak

1. Ondarretako kartzelaren kanpoaldea eta patioa. **2.** Pasealeku Berria. **3.** Casa Cirprian ondoan, Legazpi kalea. **4.** Gran Garaje Universal, Zabaleta kalea. **5.** Ulia (azken biribilgunea Mirakruz kaletik abiatuta). **6.** Bidebietako tiro zelaia (gaur egun, Salvador Allende parkea). **7.** Polloe plaza, 2, Polloe hilerria. **8.** Loiolako kuartela, Aralar mendia, 51. **9.** Burdinazko zubiaren ingurua. **10.** Udal Gas fabrika zaharraren inguruan, Izostegi pasealekua, 1. **11.** Aieteko parkea.

🏠 Atxilotze guneak

1. Ondarretako kartzela. **2.** Kontinental hotela, Zubieta, 22. **3.** Circulo Easonense, Bulebarra, 17. **4.** La Opera kafe amerikarra, Bulebarra, 17. **5.** Gipuzkoako Diputazioa (izen bereko plaza). **6.** Gobernu Zibila, Okendo kalea, 18. (egun, Pio XII.aren plazan). **7.** Kursaal, Zurriola, 1. **8.** Mariaren Bihotza eliza, Nafarroa etorbidea. **9.** Txofre zezen plaza, Txofre plaza. **10.** Mendiko San Jose babes-etxea, Ategorrietako galtzara zaharra, 43, Ategorrieta. **11.** Jai Alai frontoia (egun, desagertua), Mirakruz. **12.** Frantziskotarren eliza, Mandasko dukearen pasealekua, 39. **13.** San Jose Babes Etxea (Prim kalea, emakumeak). **14.** Jesusen Bihotza eskola, Larramendi, 10. **15.** Loiolako kuartela, Aralar mendia 51. **16.** Zapatariko Asaltoko Guardiaren kaserna izandakoa, Zubiberri, 6-10.

👤 Bortxazko lantokiak

1. Zumalakarregi hiribidea. **2.** Offset lantegiak. Arroka kalea, 3, Amara.

💣 Leku bonbardatuak

1. Igeldo mendia. **2.** Kontxako badia. **3.** Amparo etxea, Mirakontxa kalea, 16. **4.** Jesusen Bihotza komentuaren ingurua, Fedearen pasealekua, 34, Mirakontxa. **5.** Baenako dukearen pasealekua, 42. **6.** Urgull mendia. **7.** Kaia. **8.** Gazteluko zaindariaren etxea, Urgull mendia. **9.** Santa Maria eliza. **10.** Portu kaleko eta Kale Nagusiko izkina. **11.** San Jeronimo kalea, 7. **12.** Enbeltran kalea, 14 eta 16. **13.** Kasinoa (egungo udaletxea). **14.** Garibai kalea, 32. **15.** Urbieta kalea, 4. **16.** San Martzial kalea, 48 eta 50. **17.** Londres hotela, Zubieta kalea, 2. **18.** Zubieta kalea, 30 eta 32. **19.** Zubieta kalea, 52. **20.** San Martin kalea, 55. **21.** Aita Vinuesa plaza. **22.** San Bartolome, 31 eta 33. **23.** Urbieta kalea. **24.** Urdaneta kalea, 18. **25.** Landart etxea. Amara kalea, 9. **26.** Urbieta kalea, 54. **27.** Mendeurren plaza, 1. **28.** Mendeurren plaza, 6. **29.** Arabako parkearen ingurua. **30.** Maria Kristina hotela, Argentinako Errepublikaren pasealekua, 4. **31.** Peña y Goñi kalea. **32.** Usandizaga kalea, 13 eta 15. **33.** Kolon ibilbidea, 9. **34.** Erronda kalea, 4. **35.** Ama etxea, Aldakonea kalea, 36. **36.** Frantzia pasealekua. **37.** Mandasko Dukearen pasealekuaren bukaera. **38.** Monpas aldea. **39.** Loiolako kuartela, Aralar mendia, 51. **40.** Zorroagako babes etxearen ingurua. **41.** Oriamendi. **42.** Zementu fabrikaren ingurunea. **43.** San Roke, 37.

Iturria: Donostiako Udala.